

## JANTOKIKO ARAUAK

- ❑ Bazkal aurretik eskuak garbituko ditugu
- ❑ Inor bultzatu gabe sartuko gara, lagunak errespetatuz (irakasleak markatzen duen kriterioaren arabera)
- ❑ Janaria hartu eta gero:
  - Ordenan jango ditugu, lehen, bigarren eta hirugarren platerak
  - Jan tresnak behar den moduan erabiliko ditugu
  - Mahai azpira ez dugu ezer botako
  - Janariaz ez dugu jolastuko
  - Azpilan dagoena bukatuko dugu
  - Bazkalordutan mahaitik ez gara mugituko (ezer nahi badugu arduradunari eskatuko diogu, eskua altxatuz)
  - Amaitzerakoan arduradunari azpila erakutsiko diogu
- ❑ Bazkaria amaitu ondoren, gure azpila mostradorera eramango dugu, jan tresnak eta edalontzia behar den ontzira botaz.
- ❑ Jantokira ezin izango ditugu baloiak sartu, baloia uzteko kutxa bat dugu.
- ❑ Arduradunak esan arte ezin izango gara jolastokira joan (begirale bat beti kanpoan egon behar da)
- ❑ Jantokiko lanari eta langileei behar den errespetua izan behar diegu
- ❑ Bazkalondoko jolastokian gainontzeko jolastokietan agintzen duten arau berdinak izango ditugu:
  - HHkoak euren jolastokian egongo dira, LH eta DBHkoak patio nagusian, Beheko patioan edonor egon daiteke baina futboleak ez.
- ❑ Patio bakoitzean zaintzaile bi egongo dira, bakoitza bazter batean, edozein arazoren aurrean eurek dira arduradunak
- ❑ Patioetatik ezin izango gara atera, eskailerak muga izango dira.
- ❑ Bakoitza dagokion komunera joango da:
  - HH eurenera, LH/DBH atzeko patiora, Beheko patiokoak, jantokiaren ondokora.
- ❑ Ez gara Ikastola barrura sartuko.
- ❑ Liburutegian egon gaitezke, irakurtzen edota ikasten

**Arau hauek ez direnean errespetatzen, gurasoekin hitz egingo da. Ez badira betetzen, neurri gogorragoak beteko ditu Zuzendaritza Taldeak.**